

Gabiria-Murgil-Trapalata-Gaintxiki zirkularra



P. Aparkalekua. Gabiriako plazako aparkalekuan utziko dugu autoa.



1. Hasiera puntua. Gabiriako plazatik abiatzen da ibilbidea (430 m.). Plazan bertan, ikurrinaren ondoan, iturria dago, eta haien parean ikusten den bideari heldu behar zaio Ardantza aldera joateko.



2. Ardantza. Baserri bidean 600-700 metro egin eta gero, Ardantza gainera iritsiko gara. Egurrezko eserleku bat dago, eta baita plaka bat ere 1936ko gerran ibilitako gabiriari guztien omenez jarria. Hogei metro aurrerago, baserri bidea utzi eta eskubitara hartu beharra dago Murgil mendi aldera, bertako zuhaitz buruzko panel baten ondotik.



3. Haritza zelai erdian. Igoera osatu eta langa bat pasa ondoren, zelai baten erdian dagoen haritza da hurrengo erreferentzia. Leharrei mendi lasterketako arrasto fuksia du enborrean.



4. Murgil gaina. Haritzetik metro gutxira eguneko lehen gainera iristen da, Murgil gainera (513 m.). Gabiriako kaskotik 1,6 kilometrora dago, eta ordu erdian iristen da hara. Lizar bakarra du ondoan. Zumarraga bertan ikusten da, baita Aralar, Aizkorri, Korosti eta Iazpi mendiak ere, besteak beste.



5. Muntegi baseritik pinudira. Murgil gaineratik behera egin beharra dago. Gasaren posteetan daude arrasto fuksiak. Gaintzabaldik Muntegi baserri aldera doan bidea hartu beharra, eta pinudian sartu.



6. Pagoeder gaina eta aterpea. Arrasto fuksei arretatsu, Pagoeder gainera (545 m.) iritsiko gara pinudi barrenan, Madariagagoiko zozkeran. Behera eginez dago Pagoeder aterpea.



7. Bidegurutze ugari pinudian. Zidor eta bide asko daude eremu honetan, eta Leharreiko arrastoak eta GR-arenak tartekatzen dira. Trapalata iristea da helburu, eta GPSa lagungarri lekua ezagutu ezean.



8. Trapalata gaina. Pinudiko labirintoa gaintituta, eta azken malda igo ondoren, Trapalata gainera iristen da (642 m.) Buzoira iristeko metro batzuk ezkerretara egin beharra dago, baina bide zuzena eskubitara eginez da, arrasto fuksei jarraituz. Ibilbidearen 5,2 kilometroan gaude.



9. Goitegimendi eta Potzuetagaña. Pinudian zertxobait behera eginez, eta gero gora, 500 metroan Goitegimendira (635 m.) eta aurreraxeago Potzuetagañara (622 m.) iristen da, Gabiriaren eta Legazpiren arteko mugan. Legazpiren ikuspegi ederra dago bertatik.



10. Arrasetatik Gaintxikira. Arrastoak gidari direla, Arrasetara iristen da, eta han, hegiko bidezidorrari jarraituz, Gaintxikira (587 m.) otadi eta txilar artean.



11. Bidegurutzea Basoegin. Gainean metro batzuk egin ondoren, Basoegira iristen da. Pagadi txiki bat dago, eta horietako pago baten gezi fuksia bat eskubitara egiteko esanez.



12. Basoegibekotik errepidera. Borobil fuksei jarraika, Atagoitira doan errepidearekin egingo dugu topo. Bide bazterrean metro batzuk eginda, errepidea utzi eta errepide-seinalean margotutako arrastoari kasu egin behar zaio basoan sartzeko.



13. Harpasoa gurutzatu. Azti. Arrasto fuksia eskubitara doana utzi, eta etxe-pabiloi bat dagoen inguru horretan harpasoa gurutzatu beharantz.



14. Jaitsiera basoko bidezidorrean. Altuera galduz, eta tartean erreka-ziztor bat edo beste gurutzatuz -Urkuxu tartean-, arrasto fuksei jarraituz egiten da bidea.



15. Zuazola auzoa. Azken errekaetara gurutzatuta, Leharreiko bidea alde batera utzi, eta Korta jatetxe aldera igoko gara.



16. Kamiñogurutzetik herrira. Murkoan ikusiko dugu Gabiria 1,5 kilometrora dagoela adierazten duen errepide seinalea, Kamiñogurutze baserriaren ondoan. Errepidez egingo dugu igoera.



1. Amaiera puntua. Gabiriako plazako aparkalekua.




ARDANTZA-MURGIL

Herri kaskotik gertu dauden bi paraje. Ardantzán 36ko gerran ibili ziren gabiriarrak omentzeko oroï-lekua dago, eta handik Murgil mendirainoko arteko igoera bertako zuhaitz espeziez inguratuta egiten da.



TRAPALATATIK GAINTXIKIRA

Behin Pagoederrera iritsita, ibilbidearen gaintxo gehienak pinudian daude. Aurrena Trapalata (642 m.), Goitegimendi (635 m.) eta Potzuetagaña (622 m.) gero, eta azkenik Gaintxiki (587 m.), denak ere Gabiriaren eta Legazpiren arteko mugan.



GUNE INTERESGARRIAK

URKUXUKO SAKONA

Basoegibekotik Zuazola auzora bitarteko jaitsieran, hasieran pinudian eta ondoren ur-bazterreko baso mistoan, erreka-ziztor bat baino gehiago zeharkatu beharra dago. Oñatibitxiki baserrian bukatzen da eremu hori.